


## ENTZUN ZURE TXAKURRARI ETA JASO HAREN GOROTZAK.

Keinu simple horren bitartez, lan garrantzitsua egingo duzu Leioako kale eta lorategiak garbi eta egoera osasungarrian mantentzeko. Zure txakurrak ezin ditu bere kabuz kendu.

Arazoak herritar guztiei eragiten die, gune horietako batzuk osasungaitz bihurtzen baitira, jasotzen ez den kaka-kopuru handia dela eta.

**Gehienek beren maskoten eginkariak jasotzen badituzte ere, pertsona batzuek, oraindik, ez dituzte bere txakurren gorotzak kentzen lorategi eta kaleetatik.**




**ZURE TXAKURRAK GOROTZAK UZTEN DITUENEAN, BIDE PUBLIKO ZEIN LORATEGI BATEAN, EZ AHAZTU POLTSA BATEAN BILTZEAZ, ETA, ITXI OSTEAN, ZABORRETARA BOTATZEAZ.** Horrela, eragozpen eta arazo asko kenduko dizkiezu oinezkoiei, baita parkeetan jolasean dabiltzan haurrei ere.

## KALEAN TXIZA EGITEN DUENEAN, GARBITU HAREN GERNUAK.

Animalien gernua arazoa da, osasungarritasunaren eta bizikidetzaren aldetik.

**Zure maskotak hiri-altzarietan edo eraikinen fatxadetan txiza egin dezan eragozten saiatu, eta, egiten badu, diluitu txiza ur eta ozpinaren nahaste batez. Horrela, kiratsa eta korrosioa prebenituko dituzu.**



**ZURE MASKOTAK KALEAN, ERAIKINETAN, HIRI-ALTZARIETAN EDO LORATEGIETAN TXIZA EGITEN DUENEAN, ERABILI URA ETA OZPINA GERNUA GARBITZEKO.** Ozpina desinfektatzaile natural eta jasangarria da, eta usain txarra kentzen laguntzen du. Beraz, konponbide erraza da.

## BATZEN EZ DUENAK ORDAINDU EGITEN DU.

Gogoratu ekintza horiek Animalien Jabetzaren Ordenantza Arautzailean tipifikatuta daudela. Ordenantza horretan **zenbait zigor jasota daude**, tipologiaren arabera zenbatekoekin.

Kaleak eta lorategiak kakaz eta txizaz garbi mantenduta, usain txarrak, zikinkeria eta beste osasun- eta bizikidetzaz arazo batzuk saihestuko ditugu.



## ZURE MASKOTAREKIN PASEOAN IRTETEN BAZARA, GOGORATU:

Eraman ura eta ozpina botila batean, txiza garbitzeko, eta gorotzak batzeko poltsak.



### GOROTZAK:

- Bide eta eremu publikoak zikintzen dituzte.
- Gaixotasun-guneak dira.
- Eragozpenak sortzen dizkiete herritarrei.

### GERNUAK:

- Bide eta eremu publikoak zikintzen dituzte.
- Eragozpenak sortzen dizkiete herritarrei, eta usain txarra dute.
- Hiri-altzariak hondatzen dituzte.

## TXAKUR ASKEENTZAKO AISIALDI-EREMUAK.

Hiri atsegina goa edukitzeko, eta oinezkoak eta animaliak elkarrekiko begirunez egon daitezen, Leioak txakurrentzako 16 aisialdi-eremu espezifiko ditu. Haien azalera 80.000 m<sup>2</sup>-koa da guztira.

Maskotek aske goza dezakete eremu horiez, beren jabeen kontrolpean eta begiradapean, betiere. **Gogoratu aisialdi-eremu horietan ere gorotzak jaso behar direla.**

*Nik ezin dut garbitu...*

*Irtenbidea zure eskuetan dago.*

